



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2010-10-25ko OHIKO UDALBATZA

Beizaman, bi mila eta hamargarren urteko urriaren 25an, arratsaldeko 17:30etan, udaletxeko udalbatza-aretoan, ohiko batzarra egin du Udalbatzak, Alkatea Ramón Gerrikagoitia Bengoetxea jauna buru duela.

Zinegotzi hauek izan dira bileran: Begoña Garmendia Vazquez andrea, Igone Arruti Olazabal andrea, Itziar Arkonada Lizarraga andrea eta Luis Javier Oregi Iñurrieta jauna.

Ez da etorri eta ez du adierazi ezin etorria: Inork ere ez.

Udaleko idazkariak, Jose Mari Saiz Pagoaga jaunak, egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratua baita.

Beraz hartu beharreko erabakien azterketari ekiten zaio.

LEHENENGO GAIA
2010EKO EKAINAREN 25 ETA 28KO AKTEN ONARPENA

2010/06/25 eta 2010/06/28 saioetako akten zirriborroak ikusita, aho batez erabaki du udalbatzak hauek onartzea.

BIGARREN GAIA
ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA

Gaurko honetan 2010/69tik 2010/77rainoko ebazpenak irakurtzen dira.
Hori dela eta, udalbatzak aho batez adierazi du jakinaren gainean dagoela.

HIRUGARREN GAIA
2011. URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA.

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 106 artikulua ezartzen denaren arabera, tokiko administrazioek ahalmena dute zergak ezartzeko.

Egun indarrean dauden zerga ordenantza sistema berrikusteko beharra dago, baina gaur egun jasaten ari garen egoera ekonomikoa ere ezin da ahaztu. Udal hau zerga ordenantzak eta



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

hainbat prezio publiko berrikustera behartua dago, besteak beste, herrian hainbat zerbitzu eskaintzen dituztenek suposatzen duten kostua etengabea igo egin delako eta zerbitzuen kalitatea bermatu nahi delako.

Ondoren zerrendatutako aldaketak proposatzen dira, aipatzen ez diren gainontzeko zergei egun duten tratamendu bera ematen jarraituko zaielarik:

- Ondasun higiezinaren gaineko zergan, hirilurrean 100% igoera aurreikusten da, hau da, 0,04tik 0,08ra igoko da tipoa.
- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zérgan, 2,1%KPI ko igoera aplikatuko da.
- Zabor bilketa zerbitzua: 3 hilabeteroko kuota:

Etxebizitzak eta baserriak	15 €
Taberna, albergea...	25 €
Industria	30 €

Kobranta 6 hilabetetik behin egingo da.

- Hilobi eta ehorzketa zerbitzua:

Hilobiak 12 urtez	200 €
Hezurtegia	150 €
Lur ematea	250 €

- Wi-fi zerbitzua: 2,1%KPI ko igoera aplikatuko zaio.
- Frontoia erabiltzea: 1€ ordu erdia.
- Aterpetxea: Gau bat 10 €
Sukaldea erabiltzea 3 € eguna pertsona bakoitzeko.

Hau guztia Gipuzkoako Herri Ogasunak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan araututakoa betez, aldaketaren berri iragarriko da, guztiek honen berri izan dezaten eta, 30 lanegunetako epean, egoki iruditzen zaien kexa eta erreklamazioak egin ahal izateko. Esandako epea kexa edo oharrik gabe amaitu ondoren, hartutako erabakia behin betikoa izango da, akordio berrien beharrik gabe.

Udalbatzak aho batez erabaki du 2011 urterako zerga ordenantzen aldaketa egitea eta dagokion iragarpena egitea hurrengo 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean izan daitezen.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazioko bidea agortzen du Aipatutako Foru Arauaren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzen finkapen eta aldaketa onesten



BEIZAMAKO UDALA
(GIPUZKOA)

duten erabakien aurka, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorenean, dagokion Salaren aurrean, administrazioarekiko auzitarako errekurtsua tartekatu ahal izango dute interesatuek bi hilabeteko epearen barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita

LAUGARREN GAIA

**LANDA GUIPUZKOA 32 PROGRAMAREN BARRUAN, ANTSOSORO ETA ALBERDI
BASERRIETARA ERAMATEN DUTEN BIDEAK KONPONTZEKO LANEN BEHIN BETIKO
ESLEIPENA.**

Kontutan izanda Antsosoro eta Alberdi baserrietara eramaten duten bideen konponketa lanen behin behineko esleipena udalbatzak irailaren 27an egin zuela eta adjudikatua izan den enpresak Udaletxetik eskatutako dokumentuak aurkeztu dituela, honako ERABAKIA hartzen du Udalbatzak:

LEHENENGOA.- Beizaman Antsosoro eta Alberdi baserrietara eramaten duten bideak konpontzeko lanen behin betiko esleipena egitea "EGURKI AROZTEGIA S.L." enpresari 84.952,59 €-ko prezioan (BEZa barne).

71.993,72 € (BEZik gabe)
12.958,87 € BEZa

BIGARRENA: Lanak egiteko epea 3 astekoa izango da.

LAUGARREN GAIA

**2010-2013 EPEALDIKO PLAN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOAREN ONARPEN
PROPOSAMENA.**

Entitate honek defizit egoeran onartu du aurrekontua, 2010 urteari dagokiona, Nazio eta Eskualdeetako Kontuen Sistema Europarraren arabera (SEC-95). Ondorioz, Plan ekonomiko eta finantzario bat egin beharko du 2/2007 Legegintzako Errege Dekretuak, Aurrekontuen Egonkortasunari buruzko Lege orokorraren testu bateratua onartzen duenak, 22 artikuluan agindutakoaren arabera. Plan horrek honako ezaugarriak bete behar ditu:

Udal batzarrak onartu beharko du, defizita sortu denetik hiru hilabeteko epean.

Planak bermatu beharko du hiru ekitaldi igaro ondoren defizit egoera desagertu egiten dela.

Agindu hori betetzeko egin da honako plan hau, hiru atalotan banatuta:



BEIZAMA KO UDALA
(GIPUZKOA)

Hori dela eta, Udal Batzarrak gehiengo absolutuz **ERABAKI** du:

Onartzea honako plan ekonomiko eta finantzarioa, hiru atal hauek dituena:

- 1.- Kontu-hartzailearen txostena.
- 2.- Memoria.
- 3.- 2010-2013 epealdiko aurrekontuen aurreikuspenak.

BOSGARREN GAIA
ESKARI GALDERAK.

Ez dago eskari galderarik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 18:30etan eman da amaitutzat bilera. Han esandako guztia aktan jaso eta idazkari nauzuen honek **EGIAZTATZEN** dut.